


the balde



€0

otsaila / marzo
february / march

32



heroiak oporretan
heroes on vacation

3 2



the balde

antsoain 1
31014 iruñea
t. +34 948 12 19 76

kristobaldegi 14
20014 loiola donostia
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 696406396

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com · komunikazioa eragin sll

editore / editor: iñigo martínez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director &

publizitatea / publicity: arantza subiñas

diseinua / design: martin etxauri, unai abarzuza, marisa mantxola
sonia beroiz, angel burgaña, igor astigarraga, ekaitz auzmendi, ainara
gorostiaga

itzulpenak / translations: smiley, amaia orella

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz
villar, myrian gartzia, eider rodríguez, femke agema, uxeta labrit

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde
crew

heroiak oporretan / heroes on vacation: txo+odlok

komiki tira / komik strip: jon manzisor

harpidetza orria / subscription page: ikitakoko

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiak honako lizentzia pean daude:

BY NC ND Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo
helbidean zehazten diren baldintza zehatzetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>

Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:
Imaginative, provocative and interesting works? send them to:

info@thebalde.net



*Gipuzkoar batek ahal zuena
baino jende gehiago hartzeko
asmoa izan zuen.*

*Eta bi pertsona gehiagoren
irudia sartu zuen bere obran.
Gaur, gipuzkoar guztion artean
gizarte solidarioagoa ari gara eraikitzen.*

*Gipuzkoarrok asmoak
eraikitzen ditugu.*



Gipuzkoa hiria
gero eta hurbilago!





**FRANKLIN
MARSHALL**

www.franklinandmarshall.com

Franklin and Marshall-ek aurtengo kanpainarako kolekzio berria sortu du izen ematen dion Estatu Batuetako unibertsitateko ikasleetan oinarrituta. 6 urteren ostean Euskal Herrian barneratzen da bertako moda dendarik hoberenetan. Gazte bazara edo gazte sentitu eta moda kontutan azkenean egotea atsegin baduzu, badakizu: Franklin and Marshall.

Franklin and Marshall has created the new collection inspired in the students of the american university that names the brand. After six years you can find Franklin and Marshall in the best shops of the Basque Country. If you're young or feel young and you love to be in the edge of fashion you already know: Franklin and Marshall.





HENTAI KOMIKI PORNOGRAFIKO JAPONIARRA

Shin Chan-en herrialdean, Hentai hitza, arraroa den irudia definitzeko erabiltzen da. Japoniatik kanpo ordea, marrazki bizidun eta komiki pornografikoei eman zaien izena da. Ez gara friki jarriko definizio kontuetan. Besterik gabe. Bobo Balde futbol jokalaria bizkarrean daraman zenbaki bera duen telebista kateak tarteka programatzen dituela aipatu nahi genuen. Milikitoren telebista kateari esker, auto-maitasunerako beste tresna bat duzu "eskura", froga ezazu.

HENTAI JAPANESE PORNO COMIC

In Shin Chan's hometown, the word Hentai is used to describe a weird image. Out of Japan, this is the word for cartoons and porno comics. We won't be freakies when it comes to definitions. We just wanted to mention the fact that the TV channel that broadcasts them has the same number as the player in the Bobo Balde football team. Thanks to Milikito, we have another tool for self-love...try it!

COLOPHON 2007

Nazioarteko aldizkari mintegia ospatuko da Luxenburgon. Antolatzaileek bertan egotera gonbidatu eta euren urtekarian sartu gaituzte lehendabiziko aldiz. Eta aurten Luxenburgoko denez Europako kultura eta sorkuntza hiriburua, akaso inguratuko gara hain gertuko eta modu berean hain ezezaguna zaigun herrialde txiki honetara.

www.colophon.2007.com

FROM
LUXEMBURG
WITH LOVE

COLOPHON 2007

The international magazine meeting will take place in Luxembourg. The organizers invited us to be there and for the first time, our magazine will be part of their annual publication. And since this year Luxembourg is the city for culture and creativity, we may visit this close but unknown country.

www.colophon.2007.com



TXEMA BURGOS 3E


Artegune eta espazioak administrazioaren eskutik datozela pentsatzen dugu beti. Baina artearen mundu zail honetan bada bere kabuz aurrera ateratzeko kemena duenik. Gune horietako bat Bilbon topatuko duzu: 3e. Bertan erakusketa aretoa, tailerra, ikastaroak, denda, eta elkargune berezi bat aurkituko duzu.



www.txemaburgos3e.com

TXEMA BURGOS 3E

We always think that the art spaces come from administration. However, in this difficult art world, there is somebody who can work it out by himself. There is one of these spaces in Bilbao:3e. There is an exhibition center, a studio, courses, shops, and a special meeting point.

www.txemaburgos3e.com








SUCK IT
BABY...SUCK IT

DAILY MONSTER

Frankestein doktore estajanobista bat balitz, Stefan G. Bucher-ek egunero munstro bat sortzen du. Eta munstroaren erditzea sarean zintzilikatzen du guztiok goza dezagun prozesuarekin. Bitxikeria bat besterik ez da, baina guk honezkerok egunero gosaltzen dugu munstro berri baten konpainian.

www.344design.typepad.com



DAILY MONSTER

As the Frankenstein doctor, Stefan G. Bucher creates a monster every day. He uploads the birth of the monster on the web so everybody can enjoy it. Every day, we have breakfast with a new monster.

www.344design.typepad.com

FUGIO

Ez dakigu nortzuk diren, ez dakigu zer diren, ez dakigu zein den euren helburua. Tarteka gure posta-kutxa elektronikoan, han eta hemen eginiko euren ekintza grafikoaren irudiak jasotzen ditugu. Sinadura partikularrik gabe, eskaririk egin gabe "artearen thebalde" eskaintzen digute eta horregatik maite ditugu fugio-ko lagunak.

FUGIO

We don't know who they are; we don't know what they are; we don't know what their goal is. From time to time, we receive images of their graphic actions on our electronic address. Without a particular signature, and without any request, they offer art for free and that is exactly why we love Fugio.

GIZA ESKUBIDEEN 5. ZINE JAIALDIA (Martxoaren 16tik-23ra)

5. edizioa bete du honez gero Giza Eskubideen 5. Zine jaialdiak. Donostiako Udaletxearen zinemaldi kuttuna izaki, aurtengo edizioa Victoria Eugenia Antzokian ospatuko dela iragarri da. Duela gutxira arte bizi zen itzaropen garaia etenda geratu den honetan, Giza Eskubideen Jaialdiak eskainiko dizkigun filmak inoiz baino gordinagoak egingo zaizkigulakoan gaude.

www.cineyderechoshumanos.com

5th HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL (March 16-23)

The Human Rights fifth Film Festival is on its fifth edition already. Being the most beloved festival of the town hall, this year's edition will take place in Victoria Eugenia. This time that hope was suspended, the movies that the Human Rights Festival will offer will be harsher than ever.

www.cineyderechoshumanos.com



ANTI LIBURUDENDA

Pro Anti gara. Liburu denda honetan kultura garaikidearekin zerikusia duten liburu sorta ederra dutelako. Liburuez gain, era askotariko ekimen, aldizkari eta proposamenak dituztelako. Euren aldizkarietara kaleratzen dutelako. Eta merkatal gune erraldoien diktaduren pean bizi garen garaietan, Anti bezalako oasiak beharrezkoak direlako.

www.anti-web.com

ANTI BOOKSTORE

We are Pro Anti. In this bookstore, there is a wide range of books related to contemporary cultur. Apart from books, there are different initiatives, magazines and many proposals. They publish their own magazine. On these times when we life under the dictatorship of the big market places, oasis like Anti are necessary.

www.anti-web.com

MOKAUA

Logela-koak beste behin. Oraingoan Mokau bat eskaintzera datoz. Musika elektronikoa, akustikoa, hip-hop 43 minutuetan zehar gozatzeko. Musika diskoarekin bat, Logela-k eginiko hainbat lan jasotzen dituen DVDA ere badakar ekoizpen honek. Otsailetik aurrera antzokietan dastatu ahal izango dugu Logela-koek prestatu diguten Mokau berria.

MOKAUA

Logela is here again. This time, they offer "Mokau". Electronic music, acoustic, hip-hop to enjoy in 43 minutes. Along with music, there is a DVD by Logela with some of their works. From February on, we will enjoy the Mokau that Logela offers in theaters.



ZAUNK! ZAUNK! ZAUNK!



TXAKURKALEA


Txakurren eta hiriko kaleen inguruko film dokumentala. Bilboko zazpi kaleetako txakurrak dira filmeko protagonista. David Civico-k filmatu duen lan honetan, beste protagonista nagusia musika da. Besteak beste, Atom Rhumba, Joserra Senperena, Boogie Punks, Makala eta musika beltza jorratzen duten artistak topatuko dituzu soinu bandan. Noizpop zigiluak, berriro ere, Delicatessen dendetan saldu beharko litzatekeen lan ederra egin du disko liburu honekin.

www.txakurkalea.com

TXAKURKALEA

This is a documentary film about dogs and street. The main characters on this film are the dogs of the Seven Streets of Bilbao. On this film directed by David Civico, the other main character is the music. Atom Rhumba, Joserra Senperena, Boogie Punks, Makala and black music players are part of the soundtrack. Noizpop once again has created a beautiful work that should be sold in the "Delicatessen" stores.

www.txakurkalea.com





GNS

Hiru hizki horien atzean Gurenorthshore proiektua topatuko duzue. Zarautzen sortutako egitasmo honetan, inguruko surflari, skater, snowboarder eta malekoiko bestelako fauna dago. Euren webgunean, nagusiki Donostiatik Mutriкура doan kostaldean izandako surf sesio ikusgarrienen argazkiak topatuko dituzue. Argazkien kalitateaz gain, guri gehien gustatu zaiguna, GNS-ko argazkilariek uretan dagoen edozein surflariren argazkia ateratzen dutela da, beraz, zu izan zitezke euren web orriko protagonista.

www.gurenorthshore.com

GNS

Gurenorthshore project is behind those 3 letters. Created in Zarautz, there are many local surfers, skater and snowboarders. On their web site, there are pictures of the surf sessions that have taken place on the coast from Donostia to Mutriku. Apart from the quality of the pictures, what we like most is that the photographers of GNS take pictures of any surfer. So, you can be the next protagonist on their web page.

www.gurenorthshore.com

ANIMAC

(Otsailak 26 Martxoak 4)

2007. urteko edizioan, Gil Alkabetz animatzailearen lana eta musika eta animazioaren harteko lotura izango da Animac-eko ardatza. Baina urtero lez, begirada berri eta ezberdinei lekua egingo dio Animac-ek. Proposamen berritzaileak eta zinean bide berriak irekitzen dituzten sortzaileen lanak izango ditugu ikusgai. Gu behin "animatu" ginen eta orduztik urtero errepikatzen dugu zine topaleku den jaialdi honekin.

www.animac.info


ANIMAC

(26 Feb/Mach 4)

In the Animac 2007 edition, we will enjoy the Gil Alkabetz retrospective and an interesting program about the influence of music in animation. Anyway, as the previous editions, Animac will show a compilation of the most innovative and original animation works realized all around the world. This is one of those festivals we try not to miss.

www.animac.info

ANIMATU ANIMAC-ERA



Gaur gure artean
Walter Kidd
izango dugu

**"Ilearen
norabidea
animali eta
gizonarengan"**
liburuaren
egilea



Eta honaino
aste hontako Sautrelak
eman duena.
Eskerrik asko
gurekin izateagatik
eta jaunak nahi badu
datorren
asterarte.



direnik ez da sinektu behar ez direla ez da erran behar

direnik ez da sinektu behar ez direla ez da erran behar

uda 2007
summer 2007

XIBIOUZ

www.xibiouz.com



the balde: 5 urte eta years and

The balde meets Entzun Party Atxo Fun Fun Durango (2006/12/07)

Urtero lez, Durangoko Azoka aspergarriari aurre egiteko Atxo Fun Fun tabernan party-a antolatu genuen. *Entzun* aldizkariko lagunekin batera egin genuen. Eta aldizkariko editoreek anaitasun festa gisa saldu zuten horrek ez zuen askorik iraun. Bi aldizkarietako koordinatzaileek atetik sartzen zen pertsona oro *Entzun*-ekoa edo *The balde*-koa ote zen eztabaidatzen eman zutelako gaua (preziatzen den festa orok behar ditu bere ergelak)... Gaua, Makala DJ-aren "blaktronika", Marek DJ-aren "hardtronika", "Marvin Konsul Gaye"-ren ahotsa, Dropezframes-ekoen paisai grafikoez edertuta eta Oswaldo-k ateratako Karibeko cocktail-ez bustita joan zen.

The balde 5. urteurrena. Arteleku (2006/12/15)
5. urteurrena ospatzeko barrura begira jarri ginen. Barru-barrura, eta horretarako afari berezia prestatu genuen The balde-ko kolaboratzaile eta lagunentzat. Musika-afaria.

Carlos Belda musikariak 9 pieza grabatu eta Peru Almandoz sukaldariari pasa zizkion. Honek, pieza bakoitzean inspiraturik 9 platereko menua prestatu zuen. Eta biek zuzenean bat egin zuten afaltzerako orduan.

Afalostean La Kermes taldeak eskaini zuen Artelekura hurbildu zen jende ororentzat kontzertua. Festa honetan, The balde eta Entzun-eko koordinatzaileek ez zuten tontakeriarik egin (guk dakigula) baina preziatzen den festa orok bere ergelak behar dituzenez, kasu honetan paper hori Arteleku zaintzera etorri ziren guardia juratuek bete zuten... (había una vez... un circoo...).

Mila esker Carlos eta bere soinuari, Urepeleko sukaldariei, La Kermeseko taldekideei eta bertan izan zineten eta etortzerik izan ez zenuten lagun eta kolaboratzaileei.

2 festa thebalde parties

The balde meets Entzun Party Atxo Fun Fun Durango (07/12/2006)

As is our yearly wont at the ever boring Durango Fair, we organised a little bit of a bash at the Atxo Fun Fun Tavern. We set the whole thing up with our buddies from over at Entzun. And what was initially sold as a fraternal gathering of the mags didn't really last long. The two coordinators set up camp opposite the doorway and spent the whole night arguing whether the punters that walked thought he door were either "the balde" readers or the people who like looking at the nice colour pictures with the big words in "Entzun" (every party needs its dickheads.) The night was swallowed up by DJ Makala's "blactronic", DJ Marek's "hardtronic", the voice of "Marvin Konsul Gaye", the graphic scenery of Dropezframes and Oswaldo's Caribbean dry cocktails.

The balde's 5th Anniversary. Arteleku (15/12/2006)

We decided to take a look at our inner self to celebrate our 5th Anniversary. A long, deep look, so we decided to have a great big dinner for friends and collaborators of the balde. A music-dinner.

Musician Carlos Belda recorded 9 pieces of music and he passed them on to chef Peru Almandoz. The pieces of music inspired him to come up with a menu of nine different dishes. And both of them came together for the anniversary dinner. After dinner entertainment was provided in the form of a concert by The Kermes. Neither of the coordinators from the balde and Entzun got up to any nonsense this time round (at least as far as we know), but as all parties need their dickheads this one was to be no different... the security guards at Arteleku came to our rescue and were right royal arsegons (once upon a time, there was a circoo...)

Thanks a million to Carlos for the sounds, to Urepele Restaurant for the grub, to members of La Kermés and to all of who were there as well as to friends and collaborators who couldn't make it.

5 urte the balde

menua

- the gilda
- double gazpaxo bikoitza
- pa amb tomquet
- tipula and kalabaza soup
- merchulia salad
- itsaski fresh textures
- tandori masala tumagorri
- millefeuille banana karamel
- hiru gazta mixcabe





Loteria 2, 48005 alde zaharra Gordoniz 2, 48011
www.cop-copine.com



Bertan gauza guztiak berdindu egiten dira. Beste eremu bat da. Urdintasun sakonaren eremua.
Everything becomes equal there. It's another domain. The great blue domain.

Jacques Mayol.

urdin sakonean

the great blue

le grand bleu

Jacques Mayol Shangain jaió zen 1927. urtean. Bere gurasoek "Aquapark" batean egiten zuten lan eta Jacques txikiak, izurdeen laguntzaz, berehala ezagutu zuen uretan murgiltzearen sekretua. Diotenez, bere bizitzaren erdia baino gehiago eman zuen uretan. Gehiegikeria dirudi. Baina mitoak gisa honetako "gezurrei" esker bihurtzen dira mito.

Hala ere bere izaera urdina ukaezina da. Ur azpian, bere pultsua, 70 pultsaziotik 20ra pasatzen zen –guitariko edonor instante batean akabatuko lukeen aidaketa- eta bere biriken gaitasunak negargairri utziko luke Indurain bera ere. Zientzialariak, gaitasun honi "bardicardia" izena eman zioten. Ur azpian 110 metroko sakontasunera iritsi zen (55 urte zituen) egun existitzen diren tramankulu teknikorik gabe, eta ia 8 minutuz egon zitekeen bertan amasarik hartu gabe.

Jacques Mayol-ek, enpresa ezberdinetarako ur azpiko lanetan eman zuen gaztaroa. Gero, apnearen mundua profesionalizatu eta Enzo Mayorca italiarrarekin lehia eta analikidetasun harremana izan zuen. Baina bakartia eta izaera zailakoa izanik, Mayolek lehiaketa mundua utzi eta bere haurtzaroko lagunengana itzuli zen, izurdeengana.

Mayolen izena egunkarietan irakurri genuen azken aldian 74 urte zituen. Napoleonek erbesteztatua bizi izan zen Elba irlan bizi zelarik, bere burua habe batetik zintzilikatu zuen. Zituen lagun urriek, bere suizidio oharrean utzitako enkargua bete, eta egun, bere errautsak le grand bleu-n gaildu dira, urarekin bat eginik, urdin sakonean desagertuta, ur azpiko ikaro baten moduan.

Jacques Mayol was born in Shanghai in the year 1927. His parents worked in an aqua park and little Jacques, with the help of his friends the dolphins, soon mastered the secrets of the submerging in water. They say he spent more than half his life in water. That seems a bit of an exaggeration. But, as they say, myths actually become myths because of these little "lies".

There is no doubting his watery blueness all the same. Underwater, his pulse rate dropped from 70 beats a minute to 20 – an instant drop that would kill any of the rest of us. His incredible lungs would leave the most resistant of cyclists in tears. Scientists baptised this ability "bradycardia". He swam to depths of 110 metres (aged 55) without the aid of any of the technical gadgetry available nowadays, and he could stay underwater for almost 8 minutes without having to come up for air.

Jacques spent his youth with several companies that carried out underwater work. The world of diving turned professional and that's when he started his competitive rivalry and companionship with the Italian Enzo Mayorca. But he was a loner and difficult to get along with, so he soon quit the competitions and returned to his childhood friends: the dolphins.

The last time we read about him in the papers was when he was 74 years old. He was living on the island of Elba, the very same isle Napoleon had been banished to, and he hung himself from a raft. His few friends saw to it that his last wishes expressed in his suicide note were obeyed and his ashes were lost in le grand bleu, at one with the waters, lost in the great blue, just like an underwater Ikaros.

u
n
d
e
r
w
a
t
e
r




bigarren bizitza / second life



Second Life 3 Dimentsioko mundu birtual bat da Linden Lab jaunak sortua. Snow Crash eleberrian oinarrituta dago, baita cyberpunk mugimendu literarioan ere. Erabiltzaileek sorturiko mundu bat da non jendeak jolastea duen, negozioak egin, besteekin erlazionatu, sexu harremanak izan, kontzertu batetara joan, azken finean komunikatzea da helburu. **Eta zergatik Second Life edo Bigarren Bizitza?** Bada, jendeari nahi duena izateko aukera ematen diolako. Doako programa da eta aski da internetetik ordenagailura jaistea. Ondoren bigarren bizitza horretan parte hartzeko prest gara; lehendabizi sexua aukeratu; ondoren ezaugarri fisikoak. Grafikoki oraindik ez dago oso garatuta, baina era guztietako aukerak eskaintzen dizkigute beste bizitza berri batean sartzeko, bekain lodiak, gorputz atletiko bat, etab. Behin gure pertsonaia sortu ondoren, mundu birtualean sartzen gara. Irla ezberdinez osatutako mundu bat da, non edozer gauza aurki daitekeen. Salerosketak egin ditzazkegu, U2en kontzertu batetara joan, galduta bagabiltza kalean aurkitzen dugun norbaiti galdetu... Esan bezala gaur egun doan joka daiteke eta kontu bat ireki. Baina hala ere, eta berrikuntza gehienak bezala (sortzaileek dirua irabazteko egin baitute) abantaila ezberdinak daude hilero 6 – 9 euro ordainduz gero. Alegia horrekin lortzen dena da gure pertsonaiak Second Life-eko lurretan eraiki ahal izatea. Zenbat eta lur gehiago izan, hilero ordaindu beharreko kuota handitzen joaten da. Adibide bezala baliu badu, 64 mila metro karratuko irla bat izatea 195 euro kostatzen da hilean; hori bai, beti desio izan dugun irla izan daiteke. Bertan nahi duguna eraiki baitezakegu eta beste inork ezingo baitu bertan negoziarik ireki. Hotel bat ireki nahi dugula? Inork ez digu eraikitzeo paperik eskatuko, azken finean bakoitzaren lurtean norberak ditu eskubide osoak. Hala ere, eta zaila ematen badu ere, bada 3D ko mundu birtual honetan aberasten ari denik. Izatez diru metalikorik ez da erabiltzen, baizik eta euroak, dolarrak... diru erreala Lindenetan aldatzen dugu (horra sortzailearen imajinazioa), trukaketa hori egin ostean bakoitzari bere kontu pertsonalera sartzen dizkiote diruak. Lurrak erosiz gero toki estrategiko batean, adibidez Mc Donald's baten

Second Life is a 3D virtual world created by Linden Lab. It is based on the novel Snow Crash and on the Cyberpunk literary movement. It is a world created by users where people play, do business, relate to each other, have sex, go to a concert... the goal is to communicate. **Why Second Life?** Because it gives people the opportunity to be what they want to be. It is a free program and you only have to download it to your computer. Then, you are ready to take part on that second life. First, choose the sex; then, physical appearance. The graphic design is not fully developed yet. However, they offer many choices to enter a new life: big eyebrows, an athletic body etc. Once we create the character, we enter the virtual world. It is a world made of different islands, where anything can be found. You can do business, go to a U2 concert, ask for directions to somebody on the street... You can play for free and open an account. However, and as most of the innovations (because the creators did this to earn some money) there are some advantages if you pay 6-9 euros a month. The fable is related



ondoan eta ezer eraiki ez, normalena izango litzateke etxe horren kompetentziak gertu beraien denda bat ireki nahi izatea eta orduan gure lurren balioa handitu egiten da. Egia esan, Second Life orain dagoen egoeran informatika kontrolpean duena ari omen da aberasten, berehala, edozein jokotan bezala, trikimailuak ikasten baitira eta aberasteko lasterbideak ezagutu. Dagoeneko hainbat multinazionalak ireki dituzte mundu birtual honetan beraien bulegoak. Esateko, IBM-k beraien azken urteko bilera orokorra Second Lifen ospatu dute. Mundu osoan sakabanaturik dituzten buruak hitzordua egin zuten eraikinean eta bilera bertan ospatu, non denak gela handi batean aurkitzen ziren beraien pertsonaiak antzetzuz eta momentuan bizitza errealean bezala txostenak aurkeztu zituzten, iritziak aldatu. Mundu birtual hau garatzen denean norberak bere pertsonaia bizitza errealean

to the possibility that our characters build in the land of Second Life. The more lands you have, the bigger the monthly rate becomes. For example, having a 64 thousand square meter island is 195 euros a month; however, this could be the island of our dreams. We can build whatever we like on it and nobody can open any business there. What if we want to open a new hotel? Nobody can demand any license to build because in your land, you have all the rights. Nevertheless, and although it might seem difficult, there is somebody who is getting rich on this 3D virtual world. There is no money in cash, but euros, dollars... money is exchanged in Lindens (this is the imagination of the creator), once the exchange is done, money is saved on your account. If we buy some land on a strategic place, close to a McDonald's for example, and we don't build anything, it is likely that the competitors would like to open a new store close to it and so, the value of our house increases. To tell the truth, Second Life, having computing under control, is getting rich and soon, like in any other game, they learn

bezala izateko aukera emango omen du webcam-aren moduko aparatu bati esker eta hor bai enpresako bilera bat egonez gero adi-adi egon beharko dela, sentsoreen bitartez aspertuta bagaude pertsonaiak mundu birtual horretan egoera horixe adieraziko baitu. Orain artean Second Life ingelesez egon bada ere 2006-ko abenduaz geroztik gazteleraz ere aurki daiteke, baita Teen Second Life deritzona ere 13 eta 17 urte bitartekoentzat sortua, non haurrak zaintzeko lege bereziak dauden, hala nola pornografia debekatua dago baita alkohola edo drogen salmenta ere. Zer esana emango du aurrerantzean mundu birtual honek, jendeak mundu erreala utzi eta orduak pasako ditu beste bizitza hobea baten bila. Ba omen dago egunean 12 ordu bertan dagoenik. Erreala? Birtuala? Second Life.

tricks and shortcuts to get rich. Many multinationals have already opened new offices on this virtual world. IBM celebrated their last meeting in Second Life. All the heads in the world made an appointment and met there in a big room where everybody introduced their characters and showed their reports, giving and exchanging opinions. When this virtual world is fully developed, one will be able to live the life of his character thanks to a web cam. If we are in a meeting, we need to pay attention because if we are bored, our characters will express the same. Before, Second Life was in English, but from December 2006, there is a Spanish version. There is also a version from teenagers, from 13 to 17 called Teen Second Life where there are new laws for babysitting and pornography, alcohol and drugs are prohibited. From now on, people will leave the real life and spend hours trying to find a better life. There is someone who stays there 12 hours a day. Real? Virtual? Second Life.







Urtebeteko harpidetza
 One year subscription
 9euros 6ale/issues

hurrengo goizean...
 the next morning...

izen abizenak/name _____
 helbidea/address _____
 herria/city _____
 postakodea/code _____
 herrialdea/province _____
 tel/phone _____
 e-posta/email _____
 bankua/bank _____
 kontu korrente zbkia/account number (20digit-rib) _____
 sinadura/sign _____



karlos osinaga

inoiz joan ez zirenen itzulera
the return of those who never left

testua/ty: myriam garzia



sokak bi mutur ditu

"Hastapenetako *Demo*-tik bilakaera natural bat gertatu da Lisabõn. Gainera, azken disko hau, *Ezlekuak*, hastapenean bezala, gure kabuz grabatu nahi izan dugu. *Demo*-a zortzi hilabetez atzeratu zen eta nik uste proiektua dezente aldatu zela tarte horretan, beste zer edo zer izan zitekeen. Gauzak egiteko gure era bilatzen ari ginen orduan, baina Lisabõn gauza gehienak nahi gabe gertatu izan dira, bigarren bateria sartzearena bezala. Nahiko naturala izan da progresioa. Maketa grabatu, kontzertu batzuk eman eta konturatu gabe hazten eta hazten ari den zerbait ari zara egiten".

abangoardiak eta muturrak

"Gu Dut zale amorratuak ginen eta posible da puntu batean enkontrua suertatzea. Baina ez dut uste zerbaiten parte ginela. Urte horietan gustuko genuen musika egiten genuen, eta horrek satisfazio handia ematen du. Opari bat da. Ez dut uste ezer berritzailea egiten genuenik, baina bai, egia da kolore desberdinak egotea beharrezkoa dela. Euskal Herrian, beste lekuetan bezala, oso ildo markatua dago musika munduan eta badirudi hortik ateratzen bazara berritzailea edo arraroa zarela. Eta gure ustez, oso gauza normala egiten dugu".

urdin iluna

"Gure ustez, garrantzitsua izan da disko berri honetan intentsitate mailari eustea. Esan nahi dut, egiten duzun horretan sinistea, sentitzea, puntu goren hori mantentzea. Inportanteena hori da, hortik aldatu daiteke forma ala eredua, egin dezakezu musika mantsoagoa-edo, baina sentimendua ezin duzu utzi, eta hori da galdu nahi ez duguna. Bakoitzak musikaz duen asmoa edo ikusmena da hori, forma estetikoak ez du horrenbesteko garrantzirik. Garrantzitsuena zuk hori sentitzea da".

lurmuturra

"2002tik ez genuen zuzenean jotzen. Makinaria hura mugitzea oso zaila izan zaigu, gauza pila gertatu dira eta beti zen errazagoa diskoa grabatzea zuzenekoak ematea baino. Badauzkagu hainbat abesti zuzenean inoiz jo ez ditugunak eta orain, badaukagu aukera berri bat".

lurrina lehioan

"Martxel (Mariskal) aspaldiko kolaboratzailea da.

Plaza jardunaldietarako abesti bat eskatu ziguten. Egun jakin batean edonori gerta zitzaiokeen zerbait kontatzen zuen. Abesti horren izena "Egun bat nonahi" zen, gero EPA bilakatu zen (Acuarela). Diamante bat hain gertu izatea eta ez aprobetxatzea ez da bidezkoa. Oso urte latzak iragan ditu, eta aurreko pila-pilean nabarmentzen zen bezala, balio erantsi bat dute bere letrek. Oso une sakonetara eramaten gaitu. Horrelako hitzekin lan egitea luxua da".

nork bere orratzak

"Autoekoizpenak egun ematen dituen abantailak asko dira. Egia da, nire kasuan, hainbat baliabide ditudala inguruan eta horrek, hainbat aukera ematen dizkit. Baina egun, edozein taldek graba dezake bere diskoa lau txakur txikiren truke. Teknologiak demokratizatu egin ditu baliabide hauek eta egun, ez duzu zertan azken emaitzarekin pozik ez gelditu diskoa bi astetan grabatu delako. Askotan esaten da, disko askok ez dutela zuzeneko islatzen. Hori da diskoa hamar egunetan grabatu delako. Egun zure lokalean graba dezakezu zure diskoa. Gerta daiteke hain ondo grabatua ez egotea agian, baina hobeto transmititzen du zuk esan nahi duzuna. Ez dituzu 2.000 kopia zertan saldu izandako gastuei buelta emateko, eta zure kabuz banatu dezakezu Internet bidez. Eremu berri bat da. Inbertsio minimo batengatik zure diskoa izan dezakezu. Seriotasun minimo bat behar duzu soilik hori guztia aurrera ateratzeko".

nork bere soka

"Bada musikaren industrian krisi sakon bat, baina gogoratu behar dugu, musikariok ez dugula industria osatzen. Antzina, taldeak mugitzen eta grabatzen zuen bere maketa. Mugimendu hori galdu egin da eta berreskuratu beharra dago. Egun, taldeek diskoetxeetara jotzen dute nahiko galduta daudelako, eta egia esan, prozesu hori kontrolatzea ez da hain korapilatsua, nahiko gertu dago. Informazio kopurua handitu da eta honen ondorioz, informazio horren balioa ere jaitsi da. Gaur egun oso eskura dituzu bai musika eta bai beste produktu mota batzuk, Internet bidez-edo, eta ez daukate baliorik. Beste balore batzuk daude orain. Euskal Herrian bertan, lehen ez zegoen hainbesteko aniztasuna, hainbesteko konpetentzia. Aukeraketa zailagoa da. Agian lehen ez zegoen irizpiderik baina orain beharrezkoa da".



there are two ends to the rope

"There has been a natural progression in Lisabö since the early demo days. We approached our latest record, *Ezlekuak*, in exactly the same way as when we first started, we recorded everything ourselves. *The demo* was delayed by eight months and I think the project really changed in that time, it could have been something else. We were trying to do things our way, but like most things that have happened in Lisabö, things just happened whether we liked it or not. Take playing with two drummers... just seemed to happen. The progression has been fairly natural so far, you know. You record a demo, give a few gigs, and before you know it, the whole thing has really taken off and started to grow."

avant-gardes and extremes

"We were wild about Dui back then and it's possible to find a certain point of connection there. I don't think we were a part of anything. At the time we were making the type of music we liked and that always gives you great satisfaction. It's a gift. I don't think we were doing anything innovative, but it's true that there needs to be different shades and colours. In the Basque Country, like everywhere else, the music scene has a clearly defined format, and it seems that anything that strays outside of that or does something a little different is labelled as being innovative or "strange." As far as we were concerned, what we were doing was perfectly normal."

navy blue

"We really felt it was important to keep up the level of intensity on this record. What I mean is that you have really believe and feel for what you're doing. Keep it up there at a high level. That's the most important thing. I mean whatever the format or model, you play slower music or whatever, fine, but you have to maintain the emotion, and that's what we haven't lost. That's the vision and ambition each one has. The actual form the music takes isn't that important. What's important is for you to feel it."

the cape

"We haven't played live since 2002. It's been really difficult for us to get all the machinery on the move again. A lot of things have happened and it was always easier to record stuff than it was to play live. There are songs we never played live and now we'll have the chance to do that."

steamy window

"Martxel (Mariskal) has been doing stuff with us for ages. We were asked for a song in the Plaza festival, and he came up with one that spoke of something that could happen to anyone. The song was called "*Egun bat nonnahi*" (*A day anywhere*) and it ended up on an EP (Acuarela). It's just not on to have such a diamond of a song and not make use of it. He went through some really rough years and that boiling point was clearly present in his songs, an added value to his lyrics if you like. It takes us to a really profound moment in time. It's a luxury to work with lyrics like that."

each one's needles

"There are loads of advantages to self-production nowadays. It's true that, in my case, I have access to lots of means and that enables you to do a lot of stuff. But today, any band can record a record for next to nothing. Technology has democratised these means and you don't have to rush record everything in two weeks and end up with something that doesn't really represent what a band is capable of at all. You hear it all the time, the record doesn't capture the live performance. That's because they've recorded the record in ten days. Nowadays you can record your record in your rehearsal room. Maybe it's not going to be that well recorded, but it transmits what you want much better. You don't need to sell 2,000 copies to break even, and you can distribute it yourself on the internet. A new domain has been created. For a minimum investment you can have yourself a record. All you need is to be a little bit serious about what you do to manage."

each one's rope

"There is a serious crisis in the music industry, but you have to remember that we musicians are not the industry. Before, they would get behind a band, record a demo with them, but that has all been lost and it's something we need to get back. These days, bands go straight to the record companies because they're lost and, truth be told, it's not that difficult to control that process, it's very much at hand. The amount of information available has increased and has as such lost some of its value. Nowadays, you have music and any other type of product free at the touch of a button on, say, the internet. There are different values now. There wasn't that variety in the Basque Country before, that much competition. The choice is more difficult now. You didn't really need criteria before, but it's certainly necessary now."



cyann & ben
soinuaren kolore
eta emozioak
colors and emotions
of the sound



Non eta nola hasi zen taldea?

BEN: 2001. urtean hasi ginen. Cyann eta ni beste talde batean genbiltzan eta banatzea erabaki genuen zerbait pertsonalagoa egiteko. Lehendabiziko demoa grabatzea erabaki genuenean Charlie-ri laguntza eskatu genion. Egun gure bateria jolea da. Aspaldiko laguna dut eta aspaldian beste talde batean jo genuen elkarrekin. Loic botoi batzuk ukitzera etorri zen grabazioa egin genuenean. Hura egin ostean, bi izanik nahi genuen indarra lortzea ezinezkoa zela ikusi eta Charlie eta Loic-ekin Cyann and Ben laukotea osatu genuen.

CHARLIE: Oso naturala izan zen elkarrekin jotzea. Grabatutako kantuak zuzenean jotzeko entsaiatzen hasi ginen baina berehala jotzen hasi eta gauza berriak sortzen hasi ginen. Instrumentu guztiak gela erdian jarri eta "nola erabiliko dugu guzti hau?" pentsatzen genuen. Oraindik gordetzen ditut Loic-ek bi gitarra batera jo zitueneko eguneko argazkiak. Dibertigarria eta ikasketa garai zoragarri bat izan zen!

Zer esan diezaguke zue Paris-ko Vogue Studiotan eginiko grabaketaz?

BEN: 60. hamarkadan eraikitako leku zahar bat da. Vogue zigiluko artistek bertan grabatu zuten. Françoise Hardy, J Aques Dutronc... Gero abandonaturik geratu zen baina instrumentu eta objektu musikal zaharren maitale batzuk berreskuratu eta birsortu zuten estudioa. Zuzenekoak grabatzeko ez du parekorik. Horretarako eraiki zen. Esperimentaziorako estudio bat da eta gu horren bila genbiltzan. Gauza berriak frogatzeko aukera eman zigun. Disko bat egiteko modu berri bat izan da. Grabaketa osoan soinu ingeniaria izan dugun lehen aldia da. Modu horretan alderdi artistikoari soilik egin diogu so. Musikari eta honen koloreari adi egoteko aukera eman digu. Esperientzia izugarria.

LOIC: Zuzeneko grabaketa egin nahi genuen. Estudioko giroa ezinhobea izan da eta elkarrekin lan egiten gozatu dugu.

CHARLIE: Lehen bi diskoak bakarrik grabatu genituen entsegu lokalean eta mendiko etxe batean. Baina oraingoan honelako estudio batean eta soinu ingeniari batekin lan egitea izugarria da izan da. Diskoaren erdia zuzenean grabatu genuen, ahotsak ez ezik. Bigarren zatia esperimentalagoa da. Mikrofonoak toki ezberdinetan jarri edota bateria gitarra anplifikadoreen bitartez grabatu genituen. Vogue, gisa honetako grabaketak egiteko toki ezin hobea da. Estudioak duen gitarra, sintetizadore eta pedal bilduma frogatzeko aukera izan genuen gainera... zeruan egotea bezala izan zen!

Zuen disko berriak, "sweet beliefs" oso soinu partikularra du. Zuzenekoetan soinu hori mantentzen duzue?

BEN: Soinuari lotuta dagoen talde bat gara. Kantuen zatia da soinua. Zuzenean jotzen dugunean diskoaren atmosfera bera islatzen saiatzen gara. Espero dut zuzenekoak ere bereziak izatea.

Instrumentu eta material zaharra dugu: teklatuak eta efektuak, ordenagailuak, perkusioak, gitarrak. Tramankulu "vintage" guzti horiek ahalik eta modu interesgarriean erabiltzen saiatzen gara.

LOIC: Baina ez gara gezurtiak. Entseguetan asko lantzen ditugu kantuak eta gero grabaketan ez dugu grabaketa gehiegi egiten. Ahotsak eta beste konponketa batzuk ez ezik... horregatik da gure soinua beretsua diskoan eta zuzenekoetan.

CHARLIE: Jotzen hasi ginenean esan dut instrumentuak ekarri eta salseatzen ibiltzen ginela. Biretara gure tramankulu guztiak eramatea ordea arazo bat izaten da. Berezi "vintage" instrumentuak, beti gabiltza zinta eta halakoekin gauzak lotzen soinu frogetan. Batzuetan gure ekipo analogoen simulazio digitalak erabiltzen ditugu zuzenean baina hori litzateke alde bakarra diskoa eta zuzeneko emanaldien artean. Nire ustez alde bakarra energian dago. Diskoa, bolumen baxuan entzunda lasaia dago dela dirudi. Zuzenean, entzulegoaren erreakzioak energiak bete zaitzake eta emanaldi indartsuago eta kementsuagoak ateratzen zaizkigu.

Zein da hitzen garrantzia zuen musikan?

BEN: Ahotsa instrumentu gisa erabiltzen dugu. Horregatik ez dira azaltzen lehen maila batean. Hitzak guri gertatzen zaizkigun gauzetaz hitz egiten dute: maitasuna eta tristura. Horregatik dira garrantzitsuak guretzat.

CHARLIE: Hitzek garrantzia dute gure musikan. Pieza instrumentalak oso gutxitan sortzen ditugu. Musika eta melodiak konposatzen ditugu lehenik eta gero datoz hitzak, baina hitzek osatzen dute pieza. Hitzek euren esanahia dutelako, batzuetan ulertzeko errazak dira, beste batzuetan abstraktuagoak...

Niri zuen diskoa eguneroko soinu banda gisa balio dit. Emozioz gainezka egiten du. Honen inguruan ba al duzue zeresanik?

LOIC: Gure musika irekita mantetzen saiatzen gara. Emozio askok izan dezake bertan lekua guztiok batera konposatu eta konpontzen ditugulako kantuak eta guztiok dugu kantuaren pertzepzio propio bat. **CHARLIE:** Gure musika gure eguneroko soinu banda da! taldeak gure bizitzako zati handi bat hartzen duelako. Nik ez dut Cyann & Ben's diskorik entzuten. Baina beti nago musika berriaren bila. Guk jotzen duguna entzuten eta gustoko dugun musikaren bilduma da... eta bizi dugun bizitzaren ondorioa. Gure soinua eta musika garatzen ari da eta Cyann & Ben geroz eta talde helduagoa eta zihurragoa da... eta bide batez gure bizitza ere bide horretatik joan dadila desio dut...

When and how you started the band?

BEN: The band started in 2001 as a duet. Cyann and me were playing in another band but we decided to split to make something personal. When we recorded our first demo we asked Charlie, our actual drummer for some help. He is a good friend of mine since a long time, and we used to play together in another band when we were young. I

remember that Loic came to turn some buttons during the recordings. After that, we wanted more energy on stage, wich was not possible as a duet. So Charlie and Loic joined us and the Cyann & Ben quartet was formed.

CHARLIE: It was very natural to play together. We first planed one week of rehearsals just in order to play on stage the songs that we recorded, but we started to compose new material together as well. I remember that we put all the instruments we could in the center of the rehearsal studio and thought «So, how could we use this now?». I still have pictures of Loic playing two guitars in the same time! It was an enjoying and discovering period...

What can you tell us about the recording at the Vogue Studio in Paris?

